

## DIRU SARRERAK

Sortu berri dugun “Biodryer” enpresarekin aurrera egiteko ezinbestekoa da bezeroak nola eta zenbat ordaintzeko prest dauden zehaztea. Gure enpresa produktu bat saltzeaz arduratzen delakoan, ordainketa bakarreko diru-sarreraren alde egin dugu; non bezeroak aldi bakarrean ordainduko dute eskaintzen dugun produktuarengandik eta ez dute hilabetero modu jarraian ordaindu beharrik produktu hau erabiltzen jarraitzeko.



Ordainketa horren bidez gure enpresak irabazi-iturriak izango ditu eta hau era desberdinetara izan ahal daiteke. Guk aktiboen salmenta aukeratu dugu, hau da, eskaintzen dugun produktu fisikoaren eskubideak saltzea. Hala da, “Biodryer” enpresan erositako produktuen jabea bihurtuko da hura erosi nahi duen enpresa edo pertsona. Egia esanik, , mailegu edo alokairuaren ideia buruan izan dugu, baiña ez diogu zentzu handirik ikusten gure moduko enpresa batek hau aurrera eramatera.

Beste enpresa askoren moduan, proiektu hau aurrera eramateko hasierako inbertsio baten beharra dago eta horri aurre egiteko hainbat laguntzarekin egin gara. Euskal Enplegu zerbitzuak pertsona ekintzaileei laguntzak esakintzen ditu hainbat esakakizun

betez gero; 18-30 urte, baimendutako erakunde laguntzaileetako baten aholkularitza-prozesu batean sartuta egotea, EAEko errolatuta egotea eta bizileku eraginkorra izatea... Negozio ideia garatzeko laguntza 1.500 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko. Hau da, gure kasuan 4.500 euroko laguntza izango zen, 3 bazkide garelako. Zenbateko hori % 15 handituko da

eskaera aurkezterakoan 18 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago badituzu. Beraz, diru laguntza honekin eta bazkide bakoitzak 500 euroko inbertsioa eginez, 6.675 euroko inbertsioa izango dugu gure proiektua martxan jartzeko.

